HEZKUNTZA
ESKAINTZA
AIARALDEAN

# *Bide bat etorkizunera*



**HAUR HEZKUNTZA · LEHEN HEZKUNTZA · DBH**

*EDUKIZ ETA PUBLIZITATEZ OSATUTAKO GEHIGARRIA*

*Eskola publikoak*

# *Aiaraldeko Eskola Publikoa*

XXL. MENDEKO GIZARTE ALDAKOR BATEN ERRONKEI ERANTZUNA EMATEKO PREST, AIARALDEAN ESKOLA PUBLIKOAK, SARE INDARTSUA OSATZEN DU. HEZKUNTZA SISTEMAKO ETAPA GUZTIEI ERANTZUNA EMATEN DIEN 12 IKASTETXEKO SAREA. ETENGABE ELKARLANEAN ESKOLA PUBLIKOAREN PRINTZIPIOAK GARATUZ HEZKUNTZAREN KALITATEA DEFENDATUZ.

***ANITZA:*** Guztiona eta guztiontzat. Eskola publikoak pertsona eta ideia guztiak onartzen ditu. Askatasunean oinarritutako bizikidetza positiboa dugu helburu.

***PARTE HARTZAILEA:*** Eskola publikoak eskola komunitate osoaren parte-hartzea sustatzen du, eskolako agente guztien arteko komunikazioa eta elkarlana bultzatuz.

***INTEGRATZAILEA:*** Denok gara berdinak, eta denok gara desberdinak. Taldearen barnean norberak dituen berezitasunak abiapuntutzat harturik, eta eboluzio-erritmoen nahiz gaitasun intelektualen aniztasuna kontuan izanik, arreta berezia jartzen zaie aniztasunari eta desberdintasunari.

***HEZIKIDETZAILEA:*** Berdintasunean hezi, genero-diskriminaziorik gabe, eta nork bere burua nahiz beste pertsonak errespetatzea.

***INTEGRALA:*** Ikaslearen garapen integrala sustatzea, bere eremu guztiak kontutan izanik, alderdi kognitiboa, afektiboa eta soziala landuz.

***EUSKALDUNA ETA EUSKAL KULTURAN ERROTUTA:*** Euskararen erabilera bultzatzea, irakaskuntzako, inguruneko eta komunikaziorako hizkuntza gisa, eskola esparruan zein eskolatik at. Halaber, eskola publikoak euskal kulturaren transmisioa ziurtatuko du bere praktiken bidez. Euskal Herriaren historiaren eta euskal kulturaren ezagutza lantzen du, haien aldeko maitasuna eta atxikimendua piztuz.

***LAIKOA:*** Eskola publikoan bizitza gidatzen duen filosofia erlijio-sinesmen guztien alderako errespetua erakusten da.

***GIZA-ESKUBIDEEN ALDEKO BALIOEN SUSTAPENA:*** Eskola publikoak giza-eskubideekin bat egiten dituzten balioak sustatzen ditu, hala nola, autonomia pertsonala, autoestimua eta osasuna zaintzea, kritikoa eta erantzulea, gatazkak konpontzeko modu baketsua, garapen jasangarria, elkartasuna...zein oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetua.

***IKERTZAILEA ETA BERRITZAILEA:*** Eskola publikoak jakin-mina eta ikertzeko gogoa landu eta sustatzen ditu, eta etengabe aztertzen du bere lana, hezkuntza-bide berriak aurkitzeko eta praktikan jartzeko.

***METODOLOGIA BERRITZAILEKOA:*** ikasleengan ikaskuntza esanguratsuak eraikiz eta izaera kritikoa sustatuz, metodologia berritzaileak praktikan jartzen ditugu.

***GERTUKOA, HURBILA, FAMILIA GIROKOA:*** Eskola publikoak inguru hurbilarekin harreman estua du, eskola agente guztiekiko hurbila, eta komunitate osoa familia giro batean.

## ARTEKO GURE AMA

Eskola txikia, gure familia handia.

Herriko eskola gara. Ikasleen ongizateari ematen diogu lehentasuna. Horretaz aparte, hainbat proiektu eramaten ditugu aurrera umeen garapen integrala sustatzeko. Haur Hezkuntzan, umeen esplorazioari lehentasuna ematen diogu eta horretarako STEAM lantzen dugu eta Lehen Hezkuntzan Matematika manipulazioaren bidez lantzen da (CEMA metodologia).

Berbalapiko programan parte hartzen dugu ahozkotasuna era sistematizatuan eta eraginkorrean lantzeko. BIDELAGUNA programa eskaintzen dugu ere.

## ZABALEKO ESKOLA

Eskola txikia, asmo handiak.

Eskola txikia, gertukoa, familia bat bezalakoa. Ikaslearen garapen integrala sustatzea dugu helburu. Eskola euskalduna, euskal kulturan errotuta, berritzailea, hezkidetzailea eta hezkuntza komunitatearekin partehartzailea.

Hainbat proiektu eta egitasmo eramaten ditugu aurrera, hala nola, Eleaniztasun proiektua, STEAM, Bidelagun, Agenda 2030, Hezkidetza eta motxila ibiltaria.

Eskolako azpiegituren artean, patio inklusiboa, eskola-baratza, oilategia eta zientzia-gela ditugu.

Goizeko iratzargailu zerbitzua erabiltzeko aukera dago, eta eskolaz kanpoko ekintzak (txikirritmo, multikirola, irristaketa) garatzen ditugu.

## LATIORRO IKASTETXEA

Auzokoa, herrikoa.

Haur Hezkuntzan Proiektu bidezko ikaskuntza,haurren beharretara egokituta, Psikomotrizitate proiektua.

Ikasketa kooperatiboa talde lana eta ikasleen arteko elkarlana indartuz.Eleaniztasunerantz, Pluriliteracies, hizkuntzen irakaskuntza modu integral eta integratuan.

Agenda 30, Bidelaguna, Nolega, hezkidetza eta elkarbizitza proiektuak.

Proiektu berritzaileak, eraldaketa prozesuan.

Gure ikasleen eta hezkuntza komunitatearen ongizateaz arduratzen gara.

50 urte bete berri duen eskola zahar berritzeko bidean.Hurbila eta konfidantzazkoa.

## LAMUZA ESKOLA

Giro hurbila eta komunitate kideen parte hartze handia.

Gurean haurra da bere ikasketa- prozesuaren protagonista, bizi esperientziak eraikiz.

Horretarako haur hezkuntzan mugimendu autonomoa lan egiten da. Lehen hezkuntzan matematika manipulatiboak eta zientziak proiektuka aritzen gara. Garrantzia handia ematen diogu norbanako arreta eskaintzeari, honengaitik, momentu askotan bi iraskale aldi berean ikasketaren bidelagun izaten dira.

Honetaz gain, ikasleen ikasketa arrakastarako jarduerak ere burutzen ditugu, hala nola, antzerkigintza, ikasteko gela, liburutegi edota eskulanak. Familia komunitate giroa sendotzeko, kafe-tertuliak, ospakizunak... ere egiten dira.



## ARETA HERRI ESKOLA

Eskola txikia, Aretan kokatua.

Haur Hezkuntzan proiektu bidezko ikaskuntza burutzen da. Lehen Hezkuntzan metodologia aktiboen aldeko apostua egiten dugu: erronka konpetentzialak, proiektuak...

Ikaslea erdigunean jartzen ahalegintzen gara. Ikasleen ongizateak kezkatzen gaitu. Tratu onaren aldeko apostua egiten dugu.

Ingurugiroarekiko sentsibilizazioa ere lantzen dugu EA 2030 proiektuaren barruan egonik: hodakinen sailkapena, negutegia eta Natur Gela barruan kokatzen diren tailer zein jardueren bitartez gure ikasleen kontzientzia ekologikoa ere garatu nahi dugu.

Ikaskomunitatearen parte hartzea sustatzen ahalegintzen gara. Guztion ekarpenak garrantzitsuak eta aberasgarriak direla pentsatzen dugu.

## MENDIKO ESKOLA

Betiko eskola indar berrituta.

Gure metodologia ikasle bakoitzaren garapen integralean zentratzen da, bere beharren arabera egokituz; HH2 urteko ikasgelatik hasita, etapa honetako baldintzak betetzeko berariaz diseinatua (jolas heuristikoa, hezkuntza-txokoak, ordutegi egokituak...) LH6. mailaraino, eTwinning eta STEAM bezalako proiektuekin.

Gure ikasleen ongizate emozionala ardatz, giro lasaien (Jantoki Lasaiak programa, patio inklusiboa, liburutegia...) eta ingurumenarekiko sentzibilizazioaren bidez (negutegia, AGENDA 2030...) gure eskolak ikasle bakoitzaren garapen-etapetara egokitutako esperientzia aberasgarriak eskaintzen ditu.



## ETXAURREN IKASTOLA

Bizitzen ikasten.

Eskola txikia, Aiaran kokatuta.

Amara Berri sistema barruan gaude , eta hauek dira gure metologiaren oinarriak:

· Indibidualizazioa, sozializazioa, globalizazioa, aktibitatea, sormena eta askatasuna.

· Ikasleak dira gure metologiaren erdigunea. Erronka ezberdinei aurre egin ahal izateko estrategiak garatzen laguntzen diegu, autonomia, sormena eta identitate propioa bultzatuz.

· Hedabideak (aldizkaria, irratia eta telebista) gure eskolako bihotza dira, ikasleen ekoizpenei irteera eta zentzua ematen dietelako.

· Gure ikasleak bizi esperientziatik eta ekintzatik ikasten dute, irakasleak ikaskuntza prozesuaren gidariak bihurtuz.

· Eskolako proiektuak (Hezkidetza eta Agenda 30), aurrera eramateko, batzordeak ditugu eta hauetan ikasle- irakasleek batera lan egiten dute, elkarrekintza eta sozializazioa bultzatuz.

## CEPA LAUDIO-AMURRIO HHI

Edozein adina zoragarria izan daitekeelako ikasten hasi edo jarraitzeko, CEPA LAUDIO - AMURRIO HHIn doako eskaintza zabala eta norberari egokitua eskeintzen dugu bai goizez zein arratsaldez.

DBHko titulua lortzeko ibilbide osoa:

- Hasierako ikasketak.
- DBH
- Testuen irakurketa eta lanketa.
- Gaikuntza digitala: Gure egunerokotasunari aurre egiteko beharrezkoak ditugun oinarrizko informatika kontzeptuak, dagokion ziurtagiria jasoko duelarik ikasleak, Europako Next Generation funtsaren dirulaguntzari esker.
- Hizkuntzak:
  - Atzerritarrentzat espainiera.
  - Oinarrizko euskara.
  - Oinarrizko ingelera.
- Artea belaunaldiz belaunaldi.
- Memoria martxan tailerra.

## LAUDIO BHI

Laudio, Areta eta Orozkoko Bigarren Hezkuntzaren erreferentea.

DBH eta Batxilerreko adar anitzak, Artistikoa barne.

Zenbait proiektu gure nortasunaren zati dira: Hezkidetza, Hizkuntza Normalkuntza, Ingelesa eta Erasmus+, Agenda 30...

Aniztasunari erantzun eta laguntza ugari: Gela Egonkorra eta Zereginen Ikasketarako Gela, HBSP, Curriculum Diseinuko taldea, Bidelaguna, Hedatze...

Lanbide Heziketa: Oinarrizkoan Ileapaingintza, Ertainean Estetika

## URDUÑA HERRI ESKOLA

XEDEA

Umeen bidelagun izatea, edozein egoeraren aurrean modu konpetentean erantzuten jakiteko eta komunitatearen parte eraikitzaile izateko.

BEGIRADA

Urduñako Eskola espazio berri naturalizatu batean, ekosistementan murgilduta, umearen garapen prozesuan bidelagun da. Haurraren mugimendu autonomoa oinarri, eremuka lan egiten dugu, ebaluazio hezitzailea bermatuz, hezkuntza-komunitatearen begirada aldaketa bateratua eraikitzeko.

EGITEKOA

Gure begirada lortzeko proposatzen duguna, euskaratik, hauxe da:

- Prozesuko momentu bakoitzez kontzienteki gozatzea.
- Elkarrekin, elkarlanean eta elkarreraginean, naturarekin konektatzea.
- Mugimendu autonomoan oinarritzea.
- Ikasleen ekimena sustatzen duten metodologiak txertatzea.
- Ebaluazio hezitzailea oinarri izatea.

## IES ZARAOBE BHI

Ikastetxe anitza, hezkuntza eskaintza zabala duena. DBH, Batxilergoa, Lanbide heziketa, etengabeko prestakuntza. Bigarren hezkuntzatik hasita, zure ikasketa ibilbide guztia hemen osatu dezakezu. Berrikuntza proiektu ugari, Erasmus, etabarrekoak. Instalakuntza ezin hobeak. Gure lehentasuna ikasle bakoitzari erantzuna egokia ematea da, aniztasunari erantzuten pertsonen ongizateari lehentasuna emanez.



*Iritzia*



# EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN ERRONKA PEDAGOGIKOAK

**KOLDO GILSANZ BRAVO**
PSIKOLOGOA ETA HEZKUNTZAN ADITUA

Teknologia berrien arloan, hilabeteak daramatzagu irakaslegoaren prestakuntza masiboan, gure konpetentzia digitala garatzen. Aldi berean, sare sozialen eta adimen artifizialaren garapenak aurreikusten zailak diren erronkak planteatzen dizkigu. Batetik, elkarbizitza digitala: sarean gertatzen denak denoi eragiten digu eta honen gainbegiratzea hezkuntza komunitate osoari dagokio. Bestalde, adimen artifizialak lan merkatua irauliko du eta hezkuntzak horretara ere egokitu beharko du.

Currikulum berriaren garapen eta inplementazioa egungo beste erronka bat da. Hasteko, zazpi herrialdeak barnehartzen dituen Euskal Kurrikuluma garatzeke dago, mundu globalizatu honetan ikasleei bertako erreferente partekatuak eskaintzeko.

Horrez gain, kurrikulum berriak konpetentzietan diseinatu eta ebaluatzea eskatzen digu. Ikasleek egiten jakin behar dute eta guk horren arabera irakatsi. Hau aldaketa kosmetiko hutsa ez izateko sakonki hausnartu beharra dago. Gainera, PISA txostenak matematika eta irakurketan jaitsiera nabarmena utzi du agerian. Pandemiari errua botatzea ez da nahiko. Denon artean gogoeta egiteko dugu: Ezagutzak baloratzen al dira? Konpetentzien izenean, oinarrizko ezagutzen jakintza albo batera utzi al dugu? Dena erlatiboa izatea, ez al da "egiaren" ospe-galtze bat? Denak balio badu, zertarako ahalegindu?

Amaitzeko, gizartean hedatzen ari den polarizazio baztertzaileari aurre egin behar zaio. Hezkuntza Sistemak aukeren berdintasuna eta kohesio sozialaren alde lan egin behar du. Aniztasuna balioan jartzen eta batzen gaituen hori azpimarratzen, banatzen gaituena baino. Denak ez du balio. Gizarte likido honetan erreferente etikoak izan behar dugu eta hori lortzeko, irakasleon giza konpetentziak funtsezkoak dira.

LAU DIO **BHI** .eus

- DBH eta BATXILERGO modalitate guztiak
- Eskola-saioak goizez
- Hedatze ekintzak arratsaldez
- Eleanitza Proiektua
- Erasmus + Proiektua
- Aniztasun trataera zabala
- Jantokia eta garraioa diruz lagundua
- LANBIDE HEZIKETA

**ATE IREKIAK OTSAILAREN 7an 18:00etan**

**Helmuga euskarri ibilbidea helburu!**







**24-25 MATRIKULA ZABALIK!**

**OTSAILAREN 7TIK 23RA**

**www.laudiobhi.eus** 945 18 70 28 @laudioinstitutua *JARRAI GAITZAZU!*

## Laudio Ikastola



# Lau urtaro kanpo espazioez gozatzen

**IZASKUN BURDAIN MESTRAITUA** LAUDIO TXIKIKO KOORDINATZAILEA ETA **SARAY MUÑOZ DOMINGUEZ**, HAUR HEZKUNTZAKO IKASKETA BURUARI ELKARRIZKETA

**Urteak daramatzazue kale espazioak erabiltzen, zein izan da bilakaera? Zertan nabaritu duzue aldaketa?**

Pandemia aurretik kanpo espazioek haurren garapenean dituzten onuren inguruan irakurtzen eta behatzen hasi ginen. Pandemian behar bat zela ulertu genuen eta martxan jarri ginen. Ordura arte, eguraldi ona egiten zuenean soilik ateratzen ginen jolastokira (euririk ez, lurra lehor, hotzik ez...). Gure artean hausnarketa egin eta erronka berri honi aurre egitea erabaki genuen. Horrela, “lau urtaro kaleaz gozatzen” lelopean lanean hasi ginen. Egunero kalera atera behar genuela (eguzkia, euria, hotza, beroa...) eta naturak eskaintzen digunaz baliatuta gozatzeko, esperimentatzeko, ikasteko aprobetxatu beharra genuela.

Ordura arte jolastokia zen gure kanpo espazio bakarra baina aurrerantzean mendia, natura... gure kanpo espazioa izango zela adostu genuen; naturan ematen diren aldaketak, eguraldiaren arabera jantzi beharreko arropak, zomorro txikienetik, ardi, asto edo txori handienera behatuz, ikertuz, ikasiz eta gozatuz.

**Familiek nola baloratzen dute esperientzia? Zein izan da familien partetik harrera?**

Hasieran beldur ginen baina egia esan ikasturte hasieran familiekin egiten dugun bileran erronkaren berri eman eta familien partetik izandako harrera ona sorpresaz hartu genuen. Gurasoek gure proiektu berria gustukoa izan zuten. Handik aste batera haur gehienek mendira, gure basora, joateko arropa berezia Ikastolan zuten; xira, katiuskak, ...

Gaur egun Laudio Txikin era bat egonkortuta dagoen proiektu bat da.

**Eta haurrek nola erantzuten dute?**

Gehienak oso pozik eta gustura ibiltzen dira. Beti egoten da baten bat naturan ibiltzeko ohiturarik ez duena, menditik ibiltzea edota zikintzea gustuko ez duena, lurraren desoreketan ibiltzea gehiago kostatzen zaiona... baina berehala, ikerlari, behatzaile, esploratzaile izugarriak bihurtzen dira. Natura kanpo laborategi bat da beraientzat. Aske bizitzeko espazioa!

**Basoan egonda naturarekiko harremana hobeto barneratzen dute?**

Hau da gure beste helburu nagusienetariko bat. Naturan aurkitzen ditugun animali eta elementuen zaintza. Inurri bat ikustean sarritan beraien lehen inpultsoa zapaltzea da, hori baita betidanik ikusi izan duguna, baina hori egin beharrean behatzen eta ikusten geratzen gara; bakarrik doa? Janaria darama? Modu honetan, haurra, naturarekiko beste ardura bat eraikitzen joango da. Eta berdin zuhaitz, landare edo lurrean dagoen beste edozein elementurekin. Zuhaitzaren adarrak apurtu beharrean, jada lurrean erorita daudenekin jolastuko dute.

Urtaro ezberdinetan eta eguneroko eguraldiak naturan sortzen dituen paisaia aldaketen behaketak; horren gustukoa duten putzuari salto egitea, edo lehorte uneetan putzurik ez dagoela ohartzea, lupetza egotea edo ez, hosto ugari erortzea eta lurra hostoz estalita egotea edo ez.

Natura ikertu, behatu eta ondo pasatzeko laborategi zabala da!

**Eta etorkizunari begira, zer proposatzen duzue?**

Jolastokian gune berriak antolatzeko eta txokotxo berri batzuk sortzeko asmoa dugu; familien laguntzarekin eta material zein baliabide gutxirekin zeozer anitza bezain polita egin dezakegula uste dugu.

Guneetan jolasteko eta sormena lantzeko aukera anitzak ematen dituen material naturalen eskaintza zabaltzen jarraitu nahi dugu, gure haurrek esperientzia eta bizipen berriak izan ditzaten. Horrez gain, jolastokiari argitasuna emango genioke, berau toki erakargarriago bat bihurtuz.



ARANTZA FERNANDEZ MARIÑO, IKASTOLAKO IKASLE OHIA, EGUN IKASTOLAKO GURASO ETA LANBIDEZ ARKITEKTOA

**Kontaiguzu zein izan den Ikastolari egin diozun proposanena**

Haur hezkuntzako jolas gunean eremu berriak planteatzea izan da nire asmoa; enbor-gunea, ortu-gunea, ur-bideak, lurrean margoztutako jolasak...

Auzolanean eta modu errazean sor daitezkeen txoko berriak eratzea da erronka.

**Zertan oinarritu zara? Zer indartu nahi izan duzu?**

Nire ogibidea dela-eta beste ikastetxe baten patioa berriztatzeko lanak egin izan ditut eta horren ondorioz, haur hezkuntzako jolas gunean baliabide ekonomiko gutxirekin eta familien laguntzarekin aldaketa batzuk egin ditzakegula ohartu nintzen.

Proposatutako guneek inklusibitatea, material naturalak eta berrerabilitako materialak dituzte oinarri.

**Ikastolako ikasle ohia eta orain guraso izanda, Ikastolak interesgarritzat eta egingarritzat jo du zure proposamena. Nola bideratuko da?**

Haur hezkuntzako zenbait familien artean ideia partekatu da eta jendearekin ekarpena eta borondateari esker, auzolanean egitea aurreikusten da.

Gurasoak prozesu honen parte aktiboa izatea, hau da, egitasmoan parte hartzea edota inplikatzea oso garrantzitsua dela iruditzen zait. Ikastolaren parte garela erakusteko modu bat ere bada, eta zergatik ez, gure seme-alabak harro sentitzeko aukera bat ere. Beraiek gozatzeko gunea izango da!



*Iritzia*

# SEXUALITATEA OINARRIAN, SEXU HEZIKETA ERE BAI!

**DIANA IBARGUTXI ABARRATEGI**
SEXOLOGIAN ETA PSIKOLOGIAN ADITUA



Sexu heziketaren munduan iharduteak ematen dizkidan bizipen eta ikuspegiak gazi-goxoak dira askotan. Zenbat aurreiritzi eta mito jarraitzen duten barneratuta, adin guztietan. Batzuk “aintzineko mitoak” dirudite, beste batzuk, gaur egungoak. Zorionez, askotan ikusten da sexu heziketan esku-hartze zuzenak egiteak uzten dituen aztarnak eta nola honek norberak ezagutu, onartu eta adieraztea ahalbidetzen duen.

Oro har, sexualitate hitza baldintzatuta, murriztuta, kutsatuta eta zikinduta dagoela esatera ausartuko nintzateke, eremu askotan. Oraindik ere hitza entzun eta geure buruari filtro askorik ipini barik, burura datorkiguna gorputzarekin egiten duguna da, genitalekin, hain zuzen ere. Formakuntzak ematerakoan lehenengo helburua beti da sexualitateen ikuspegia zabaltzea. Sexualitatea denon ezaugarria da, denok garelako sexudunak. Giza kualitatea da, sexuan nolakoak garen adierazten duena. Eta orduan, sexua zer da? Berriro ere, sexua ez dira praktika erotikoak, baizik eta nor garen. Beraz, sexualitatea bakoitzaren bizipen eta biografiarekin lotuta egongo da, bakoitza den hori nola eraiki eta konfiguratzen dugun bizitza osoan zehar, alegia, modu bakar eta errepikaezinean. Sexualitatea identitateak, orientazioak, adierazpenak, gorputzak, plazerrak, desirak, intimitatea etab. bere baitan hartzen dituen kualitatea dela jakinda, argi dago pertsonen garapenean ezinbestekoa dela sexu heziketa. Isiltasuna ez da txerto bat, eta ezinezkoa da sexu heziketarik ez egitea, isitasunekin ere heziketa egiten baita.

Zenbat hazten garen sexualitatea zer den jakiterakoan, ikuspegia zabaltzerakoan, generaren eremuan kokatzerakoan, pluraltasuna ikustaraztean, ukaezinak diren ezberdintasunak erdigunean ipintzerakoan eta ezberdintasunetik abiatuta eskubide berdinak aldarrikatzerakoan. Zeharkatzen gaituen eremua izanda, hezkuntza sisteman txertatuta egon beharko litzateke sexu heziketa, enborreko irakasgai gisa. Akademikoki ezagupen asko izan ditzakegu, baina zer egingo dugu gure artean ez badakigu harremantzen? Zelan ipiniko dugu kolokan aurkitzen dugun eta aurkitzen gaituen informazioa, bestelako aukera eta ereduak ez baditugu bermatzen? Denok eragile eta gizartearen parte garen heinean, borroka dezagun kalitatezko sexu heziketa izateko!



Amaurre Ikastetxea

# “Bihotza hezi gabe burua heztea? Horri ezin zaio inola ere hezkuntza deitu” -Aristoteles-



**Gugan sortzeko beharrak**

Murgilduta gauden gizarte zoro honetan non bizi-erritmo zorabiagarria daramagun, gelditzea ezinbestekoa dela ikusi dugu. Gelditzea, barrura begiratzea da eta hori ez da erraza izaten, trebetasun handia behar delako. Hau gure abiapuntua izan da Amaurre Ikastetxeko irakaslegoaren artean hausnarketa egiteko eta irakaskuntza prozesu batean murgiltzeko. Orduan, neurozientziak erantzunak eman dizkigu. GuGan programaren bidez, haurrei ahalik eta ongizate emozional handiena emateko. Gure bidelagunak, Tolosako Herrikide ikastetxeko Txaro eta Peio eta Carme Timoneda erreferentziako neuropsikopedagogian adituaren laguntzarekin GuGan proiektua martxan jarri dugu. Konturatu gara zaintzen ez dena ahuldu egiten da. Ez zaintzeak lehenago edo geroago bere ondorioak dituela, horregatik buru belarri ari gara GuGandik (irakasleok) hazten, gure ikasleentzat eredu izateko.

**Hezkuntza emozionala, aspalditik entzuten den gaia da, nola ari zarete egunerokotasunean lantzen?**

Hezkuntzan lan ona egin nahi baldin badugu, garunaren funtzionamendua ezagutzea ezinbestekoa da. Honetarako Neurozientziaren printzipioetan oinarritu gara. Emozioak beti egon direlako ezkutuan edo ezjakintasunean, oraingoan badakigu beti emozioak aurre egiten diola arrazoiari. Ikasleei garunaren funtzionamendua irakasten diegu irudien bitartez. Adibidez, Ikerrek beste ume bat jo du. Erreakzio hau emozionala izan da. Orduan, egoera honek kutsu emozional negatiboa ez izateko Ikerrengan,, txakurraren irudia erabiltzen dugu. Horrela Ikerrek ulertzen du, txarto jokatu duena barneko “txakurra” izan dela eta ez bera. Modu honetan, ikasten dute “txakurra” hezten.

Neurozientziak erakutsi digu betidanik erabili izan diren etiketak alde batera uzten.

**Zer esan nahi du emozionalki heztea?**

Gure garuna bi solairutan banandu dezakegu: goikoa non kontzientzia, pentsamendua, arrazonamendua,... dauden. Beheko solairua, alderdi emozionala. Bi solairu hauek erlazionatzean datza, horretarako, orkestra-zuzendari baten irudia erabiltzen dugu ikasleek ulertzeko. Orkestra-zuzendariak lotura sendoak sortzen dituelako. Orkestra-zuzendari honek denbora behar du garatzeko, 5 urte ditugunean hasi eta 25 urterekin amaitzen da. Hortaz, gure lana, ume bakoitzaren orkestra-zuzendari hori egoki garatzea da.

**Zer da memoria emozionala?**

Gure inkontzientean metatzen dugun kutsu emozionala da. Positibo edo negatiboa izan daitekeena. Garuna aldatzen da bizi ditugun esperientzien arabera. Haur bat jaiotzen da milaka neuronekin, hauek egoki konektatzeko umeei estimulu egokiak eskaintzen dizkiegu txiki txikitatik. Hau ez badugu egiten, sentimen negatiboak pilatuko dituzte eta egoera ezberdinen aurrean defentsa-jokaerak hartuko dituzte automatikoki. Adibidez, jarduera disruptiboak, harremanetarako zailtasunak, enpatia eza, indibidualismoa, blokeoak, gainezka egitea, gehiegizko auto-exigentzia...



*Albistea*

# Otsailaren 7tik 23ra luzatuko da aurrematrikulazio kanpaina



OTSAILAREN 7AN HASIKO DA HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO AURREMATRIKULAZIO KANPAINA MARTXOAREN 26AN AURKEZTUKO DIRA BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK, ETA APIRILAREN 10ERA ARTE EGONGO DA ERREKLAMAZIOAK EGITEKO TARTEA.

Otsailaren 7an abiatuko da 2024-2025 ikasturterako aurrematrikulazio kanpaina Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Jarraitu beharreko egutegia plazaratu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Erakunde publikoak zehaztu duenez, otsailaren 23ra arte egongo da eskaerak aurkezteko epea, online edota aukeratutako lehenengo ikastetxeko idazkaritzan. Martxoaren 12an plazaratuko da eskatzaileen zerrenda, eta 26an, aldiz, behin behineko zerrenda. Apirilaren 10era arte egongo da da azken horri erreklamazioak egiteko epea, esleitutako hezkuntza zentroarekin ados ez egonez gero eta apirilaren 26an plazaratuko dira behin betiko zerrendak.

## *Informazioa*

Eusko Jaurlaritzaren atari nagusian topatu daiteke kanpainari buruzko informazio guztia, eta ondorengo QR kodean:





